



*Hezkuntza soziolinguistikoa:
esperientzien partekatzea eta
aurrera begirakoa*

Eibarren, uztailak 4

**Hezkuntza soziolinguistikoa.
Gaiaren kokapena**

Ane Ortega Etcheverry

Heziketa soziolinguistikoaren erronka kokatu nahian eta oinarri teoriko amankomun bilatu nahian, **hiru kontzeptu**:

- Hizkuntza-mundantza
- Kontzientzia
- Hizkuntza-sozializazioaren paradigmaren ekarpena

1. HIZKUNTZA-MUDANTZA

“Hizkuntza mudantzak norbanakoek beren hizkuntza-errepertorioan aldaketa esanguratsuak egiten dituzten une biografiko zehatzak dira.” (Pujolar & Gonzàlez 2013: 139. Gure itzulpena.)

Katalan mudarako bizitza-momentu egokiak:

1. Eskolan, lehen hezkuntzan
2. Bigarren hezkuntzan
3. Unibertsitatean
4. Laneratzean
5. Familia berria osatzerakoan
6. Guraso bihurtzerakoan

Euskal hiztun berrien mudantza momentuak

(Ortega eta beste 2016, Puigdevall eta beste 2018)

1. Testuinguru oso euskaldun batera bizitzen joatean.
2. Bikote euskaldun batekin hasterakoan.
3. Guraso bihurtzerakoan.
4. **Sare berrietan edo jarduera berrietan sartzerakoan**, hala nola, lagun berriak, lankideak, familia politikoa egiterakoan edota aisialdiko jarduera berrietan hasterakoan.
5. Eta bereziki garrantzitsua, **kontzientzia hartzean**, euskara erabiltzea norberaren erantzukizuna dela barneratzean. (Azken hau bizitzaren edozein momentutan gertatu daiteke.)

Gaztelaniaren aldeko mudantzarik?

- Arrue proiektuaren datuak:



Gaztelaniaren aldeko muda LHtik – DBHra

- Arnasguneak diren udalerrietan ere mudarik?

Kontzientzia hartzearen garrantzia

*Ni Oiartzungoa naz eta nik euskera ikasi nun ere bai ikastolan. Ikastolan sartu nintzen hiru urtekin eta geroztikan dena, Batxiler arte, dena euskeraz eman dut eta oin unibertsidadean euskeraz. [...] Eta lagunekin ere beti euskeraz hitz egin izan dut... Berez, **seigarren maila arte edo, gaztelera hitz egiteko tendentzia nakan, baina seigarren mailatikan aurrera hasi nintzen euskera, euskera, euskera**, eta oain gaztelera apenas ez dut ikutzen, o sea, beti euskera hitz egiten dut, familiaz aparte. [...] Seigarren maila arte, ba tendentzia genun guk ere bai haiekin ginenean gaztelera hitz egiteko. Baino geo ikastolan ta hasi ginen, "benga pues...", **hasi ziguten txarla ematen euskarari buruz eta, "zergatikan ez dugu guk euskeraz hitz egiten?"**. **Eta hasi ginen horrela eta geroztikan beti pertsona haiekin eta beste lagun guztiekin euskeraz dena.** (Gazte-DO-E, 50. Euskal hiztun berriak ikerketa)*

2. ***KONTZIENTZIA*** kontzeptua

Euskal gizartean adostasun handia dago, “gazteek ez dutela euskararekiko *kontzientzia* nahikorik”.

Nola ulertu *kontzientzia*?

Kontzientzia soziolinguistiko kritikoa

Pedagogia kritikoa (Paulo Freire 1993)

- *Kontzientizazioa*
- Hausnarketa kritikoa
- Ikasle aktibo eta kritikoa

3. HIZKUNTZA-SOZIALIZAZIOAREN PARADIGMA


Sozializazioa —handi-handika harturik— haurrari edo heldu hasiberriari komunitate jakin baten gizarte bizitzan eraginkortasunez eta egoki parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, joerak eta jarduerak eskuratzea ahalbidetzen dion prozesua da. [...] Paradigma horretan *hizkuntza sozializazioa* prozesu dinamikoa, elkarreragilea, bizitza osoan dirauena eta inguruneari lotua da. (Kasares 2015: 15-16)

Planteamendu holistikoa

- Prozesu jarraitu eta amaigabea da, haurtzarora mugatzen ez dena.
- Testuinguru sozio-historiko eta soziolinguistiko jakin baten kokatua -->
- Hizkuntzaz gain, haurrek ikasten dituzten beharrezkoak eguneroko gizarte bizitzan egoki parte hartzeko, hizkuntzaren erabilerarako arauak, hizkuntzen arteko hierarkia ere.
- Prozesu elkarreragilea eta noranzko askotarikoa (*multidirectionality* eta *multiagency*):

- ***Prozesu elkarreragilea eta noranzko askotarikoa (multidirectionality eta multiagency):***

- Goitik beherako eta norabide bakarreko (gurasoengandik seme-alabengana edo helduengandik haurrengana) ikuspegia gainditzen du.
- Umeak ez dira hartzaile pasiboak, eragile dira, agentzia dute.
- Eragile asko daude; familia, hezkuntza komunitatea eta komunitate osoa elkarreraginean.



Iturria: García Ruiz, 2023: 79

Hezkuntza soziolinguistikoari begira, hizkuntza-sozializazioaren paradigmaren aintzat hartzekoak

- Umeak / nerabeak / gazteak agentzia badute, eragile moduan begiratu eta tratatzen ditugu?
- Euren hizkuntza-sozializazioan eragina duten agente guztiak kontuan hartzen ditugu?

ESKERRIK ASKO!

ERREFERENTZIAK

Fairclough, N. (ed.) (1992). *Critical language awareness*. London: Longman.

Freire, Paulo (1973). *Pedagogía del oprimido*. Buenos Aires: Siglo XXI.

García Ruiz (2023). *Testuinguru erdaldunetako D ereduko ikastola bateko gurasoen familia hizkuntza-politika eleaniztunak*. Argitaratu gabeko Doktorego tesia. EHU/UPV.

Kasares, Paula. 2014. *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbao: Euskaltzaindia.

Kasares, Paula. 2015. Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga. *BAT aldizkaria* 94, 13-45.

Pujolar, Joan & Gonzàlez, Isaac (2013) Linguistic 'mudes' and the deethnicization of language choice in Catalonia. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 16:2, 138-152.

Pujolar, Joan amb Isaac Gonzàlez i Roger Martínez (2010) Les mudes lingüístiques dels joves catalans. *Llengua i ús*, 48: 65-75.